


Noaia!!



Asteburu honetan hasiko dira festak Kalezarren



Eñaut Zuriarrain

Zubietako alkate berria

Aloe Vera_z eginiko **Gela** eta **Xaboia**

Gipuzkoan egindakoa



Lixoné

**ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK**

Alkartasuna Elkartea
Baserritar Kooperatiba
alkartasuna@usurbil.com
Ugarte industrialdea 12
943 361 114



**LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.**

**INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKLINTZA**

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telt: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 3616 59 • larraplast@adegi.es



*Ondo pasa
San Joanak!!*

elektrozitatean
IZAGIRRE

Goiz Argi etxea, 37 kalezar
943 365 095 • 609 068 111

Badok Amairu !!

Laida Bastida: "Ezin ninteke bizi, geldirik egonda"

Izen abizenak: Laida Bastida Díez.
Adina: 32 urte. **Helbidea:** Kaxkoa.
Lanbidea: lan bitartekaria.

1. Jakirik gogokoena.
 Mariskoa eta arrain zopa.

2. Ohitura txarren bat.
 Hitzorduetara garaiz ez iristea.

3. Zer gordetzen duzu sakelan?
 Dena poltsan.

4. Zertan berpiztuko zinateke?
 Gau txori batengan.

5. Zeri diozu beldurra?
 Heriotzari eta gaixotasunei.

6. Miresten duzun pertsona.
 Familia eta lagunak.

7. Ezin zaitezke bizi...
 Geldirik egonda.

8. Egindako erokeria handiena.
 Gaztetan, Tolosako Inauterietatik
 auto-stop eginda itzultzea etxera.

9. Liburu bat.
 "La sombra del viento".

10. Film bat.
 "El Pianista".

11. Leku bat.
 Hondartza eta kostaldea.



12. Herriko lekurik ederrena.
 Arratzain inguruak.

13. Urtaro bat.
 Uda.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
 Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ATXEGALDEKO FESTAK, ABUZTUAN **5. OR.**

ZUBIETAKO HERRI BATZARRA, OSATUA **6. OR.**

AURORA PARRAREN KANTALDIA SUTEGIN **8. OR.**

SAN JOANETAKO EGITARAU **10. OR.**

IKASTOLAREN EGUNEKO IRUDIAK **13. OR.**

ALEBINAK, GIPUZKOAKO TXAPELDUN **15. OR.**


AGENDA, DEIALDIAK... **17. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

Guraso berrientzat ikastaro proposamenak

Azken urteetan nabaria da haur gehiago jaiotzen ari direla herrian, ikusi besterik ez dago frontoi ingurua edota parke guztiak. Ze poza ematen dioten herriari, eta ze bizitasuna! Hala ere, hankagorri txiki hauek instrukzioz gabe iristen dira, eta askotan buruhauste bat baino gehiago ematen diete praktikan dauden gurasoei. Kolektibo sufritu horri begira, hainbat ikastaro proposatu nahiko nituzke demografia maila goruntz jarrai dezan:

Teoria lantzeko:

- Umeen oinarritzko hizkuntza: espresio erregularrak, gu-gu, negarra, zotina, barretxo desorekatzaileak...

- Umeen hizkuntzaren joera nagusiak: gose naiz, kaka dut, negar egiten dut horrelakoa naizelako....

- Umeen hizkuntzako ediziorako tresnak: hiztegiak eta interpretazioa: aiton-amonen itzulpenak, aitaxoren itzulpenak, amaxoren itzulpenak...

Bestalde, garai hauetan hain aproposak diren udako ikastaroetan zer edo zer praktikoagoa antolatu daiteke:

- Umeen kotxetxoak gidatzeko baimena lortzeko ikastaroa.

- Umeen sillatxoan montaje eta desmontaje praktikorako ikastaroa.

- Sillatxoan gida saioak egoera gogorretan: Paseotxo euria egiten duen egunetan: Nola jarri umea sillan busti gabe; karrotxoa gidatu esku batekin beste eskuan aterkia daramazula, zure poltxoa, umearen meriendaren poltxoa, erosketak, txakurra, egunkaria eta gainera mobiletik deitzen zaituztenean...

- Ah! eta oinarritzko ikastaro bat, nola esnatu zure bikotea era suabe eta dotorean gauean, umea negarrez dagoenean eta zu mila aldiz jaiki zarenean, ¡qué ya te vale tí@! Zure txanda da!

Ordu kopurua guztira: 500.

Titulazioa: Jaio-berrien beharrian eta funtzionamenduan espezialista titulua.

Irakasleak: Familia ugarietako guraso "kurtituak", aiton-amon emerituen laguntzaz.

Homologarria Ipar Hemisferioko herrialde guztietan.

Matrikula prezioa: Gurasoen desesperazio mailaren araberakoa.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Askok dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
 ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
 Tf 943 37 08 78


20170
 USURBIL

BORDATXO edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
 Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
 erakundeak



15 urte eta gero, berriz ere festak Atxegalde auzoan

1990eko hamarkada hasieran eten ostean, bizi berrituta datoz Atxegaldeko jaiak. Antolatze lanetarako auzokide talde bat bildu da eta gogo biziz prestatzen ari dira adin eta gustu guztientzat asegarri izango diren ekitaldiak. Gogoan hartu honako bi egun hauek; abuztuak 31 eta irailak 1. Auzoa biziberrituko duten eta datozen urteei begira, aurrekaria izan daitezkeen festa egunak.

Hamabost urte baino gehiago igaro dira, azken aldiz, auzo-elkarteko kideek Atxegaldeko jaiak antolatu zituztenetik. Ekainean batzuetan, geroago iraileko asteburu batean, ostiraletik hasi eta igande iluntzera arte auzoan jaietarako behar zen guztia zegoen; herri kirolak, haur jolasak, gaueko musika emanaldiak, barrakak, maskota...

Baina hori guztia amaitu zen. Jaietatik gelditu ziren arrasto bakarrak auzotarren oroitzapenetan gordeta daude. Hala ere ez da denbora askoz gehiagorako izango. Auzo-elkarteko kide izan ziren askoren seme-alabak bildu dira azken hilabeteetan, helburu eta asmo bakar batekin; Atxegaldeko jaiak berreskuratzeko ahaleginaren inguruan. Aurtengo festek, hainbeste urteren ostean lehenengoak, datozen urteei begira berreskura daitezkeen ohitura baten hasiera markatu dezakete.

Larunbat eguerdiro biltzen dira Jai Batzordekoak, garai batean, auzo-elkarteara izan zen egoitzan bertan. Buru-belarri, dagoeneko prestaketa lanak abian jarri dituzte; diru-potoak jarri dituzte herriko hainbat tabernatan, auzoan etxez etxe ere laguntza deia egina dute, enpresetatik ere materiala jaso dute, errifa ugari saldu dituzte... Guztia, ahalik eta jai egunik potoloenak antolatzeko ilusioz egina.

Auzotar guztiei zuzendutako jaiak izango dira

Gazte jendea hurbildu da, bai. Gazteak buru-belarri dabilta antolaketan. Baina ez dira gazte festak



HAMABOST URTEREN BURUAN ATXEGALDEKO PLAZAN FESTA GIROA NAGUSITUKO DA (ARGAZKIA, 2007KO NOAUA!KO EGUTEGITIK JASOA).

edo gazteei soilik zuzendutako jai egunak izango. "Auzotar guztiei zuzendutakoak baizik", argitu dute antolatzailleek.

ATXEGALDEKO FESTAK

"Abuztuko azken asteburuan ospatuko dira jaiak, maiatzaren 31n hasi eta irailaren 1 arte iraungo dute"

Bi egun iraungo dute; aurtengoak abuztuaren 31n eta irailaren 1ean ospatuko dira. Gauetan musika emanaldiak izango dira baina egunez ere ez da ekitaldirik faltako. Besteak beste, haurrentzat jokoak, mus txapelketa... Eta jatorrizko gunean, auzo-elkartea izandakoaren egoitza atarian berreskuratu nahi duten txosna. Abuztuko azken asteburuan, 48 ordutan etenik ez dute izango jaiak.

Argazki zaharren proiektzioa

Ekitaldi asko izango da. Tartean, auzoan garai batean ospatzen ziren jaiak gogoratzeko aukera izango da. Jai Batzordekoek une horiek jasotzen dituzten argazki zaharren proiektzioa

prestatu eta jaietan eskaini nahi dute. Baina horretarako argazki zaharren faltan dira. Auzotarrei, eta oro har, herritarrei dei egiten diete; etxean Atxegaldeko jaietako argazki zaharrik izanez gero, proiektziorako utz ditzaten.

Bestalde, etxe tresna zaharrak, hautsa hartzen daudenak, zaborretara joango diren horiek probetxuzkoak izan litezke jaietarako. Uzteko prest zaudetenok deitu 635 205 734 zenbakira (Nagore) edota e-mail bat bidali honako helbidera:

atxegaldekojaiak@hotmail.com.

Jai Batzordea larunbatero biltzen da

Antolatze lanetan lagundu nahi dutenek, larunbatero 13:00etan plazako lokalera azaldu besterik ez dute. Jai Batzordekoek laguntza, ideia eta proposamen berrientzat ateak zabalik dituzte. Geroz eta gutxiago geratzen da aspaldi entzun gabeko suziririari su emateko...

Osatu da Zubietako Herri Batzarra

Maiatzaren 27ko emaitzen ondorioz, Eñaut Zuriarrain eta Imanol Azpiroz izango dira Zubietako alkateak. Pasa den larunbatean egin zen kargu-hartze ekitaldia Alamandegin. Ahalmen juridikorik ez duela Herri Batzarrak eta horregatik elkarlana sustatu behar dela nabarmendu zuen Imanol Azpirozek. Marisol Garmendia Donostiako zinegotzi berriak, bere aldetik, orain arte Zubietarekin harremanak eskasak izan direla onartu eta horiek hobetzeko konpromisoa hartu zuen. Datorren astelehenean, hilak 18, Odon Elorza zubietarrekin biltzeko prest dagoela adierazi zuen.



PASA DEN LARUNBATEAN HARTU ZUEN ALKATETZA KARGUA EÑAUT ZURIARRAINEK.

Imanol Azpirozen aurkezpenarekin hasi zen Zubietako Herri Batzarra osatzeko bilkura. Odon Elorzak hauteskundee-tan banatu zuen propaganda atera zuen Imanol Azpirozek. Marisol Garmendia, Donostiako udaleko zinegotzi berriaren harri-durarako. Propaganda horretan Zubieta ez zela aipatu ere egiten adierazi zuen Imanol Azpirozek: "tamalez, Donostiak proiektu suntsigarrietarako bakarrik hartzen du kontuan Zubieta"; esan gabe, errauste plantaz eta kartzelaz ari zen Imanol Azpiroz.

ERRAUSTE-PLANTA

"Errauste planta Donostiako udalari inposatu zaion proiektua dela esan zuen Donostiako zinegotziak"

Baina giroa gozatu asmoz, Imanol Azpirozek hitz onak izan zituen Marisol Garmendia Donostiako zinegotziaren-tzat: "Lau urteotan lortu ez duguna, Marisolekin lortu dugu". Legealdi berrian, Donostia eta Zubieta arteko zubi-lana egiteko eskatu zion Imanol Azpirozek Marisol Garmendiari.

Hauteskunde egunean, errauste plantaren inguruko herri galdeketa egin zen Zubietan. Imanol Azpirozek emaitzak

paperean eman zizkien Donostia zein Usurbilgo udal ordezkariari. Partehartzea %62koa izan zela eta galdeketa balio legalik ez duen arren, emaitzak kontuan hartzeko eskatu zion udal ordezkariari.

Marisol Garmendia Donostiako zinegotzi berriak onartu zuen elkar-ulertzea ez dela egokiena izan; harremanak eskasak izan direla onartu eta horiek hobetzeko konpromisoa hartu zuen. Odon Elortza funtzioetan ari da alkate lanetan, baina kargua hartu bezain pronto Zubietako Herri Batzarreko harrera egingo diola agindu zuen Marisol Garmendiak. Hitzordua ere eman zion Zubietako Herri Batzarreko kideei: ekainaren 18an, arratsaldean.

Gauzak hobeto egiteko borondatea

Imanol Azpirozen hitzei erantzunez, Donostiako udalak suntsigarriak ez diren proiektuak garatu dituela adierazi zuen Marisol Garmendiak: "begi bistan ditugu etxe berriak, frontoia... Eta badira beste proiektu batzuk ere. Gauzak hobeto egiteko borondatea badago".

Errauste-plantari dagokionez, "Donostiako udal gobernuari inposatu zaion proiektua" dela esan zuen Marisol Garmendiak. Arazoa nola konpondu denborak esango duela adierazi zuen

Donostiako udal ordezkariak. "Zubietak badu etorkizunik eta elkarriketarekin eta jarrera baketsuekin aurrera egingo dugu".

Luismari Ormaetxeak ere hitza hartu zuen. Ezin zuela Marisolek agindutako konpromisorik hartu, "emaitzei begiratu ziu-renik aldaketa izango da Usurbilgo udaletxean eta udal gobernu berriari dagokio konpromisoak hartzea". Imanol Azpiroz Zubietako alkatea izateaz aparte zinegotzi ere izango dela Usurbilgo udaletxean eta harremanak hobeak izan daitezken, hori ere landu dezala eskatu zion Ormaetxeak Azpirozi.

"Batu, ez banandu"

Hori esan eta gero, gogoeta bat egiteko eskatu zion Luismari Ormaetxeak Zubietako Herri Batzarreko alkatei: "batu, ez banandu dio Zubietako ikurri-nak. Hori izan behar du zuen egitekoaren ardatza". Azkenik, batzarkideak sei beharrean bost izango dira legealdi honetan. Honen harira, "sei batzarkidek osatzen dute herri batzarra baina bost izan dira bakarrik aurkeztu direnak". Herrigintzarako borondatea gero eta txikiagoa dela eta horren inguruan gogoeta egitea eta partehartzea sustatzeko proposamena egin zion.

Eñaut Zuriarrain, Zubietako alkatea

“Kontuan har dezatela zubietarren hitza”

Errauste plantaren proiektua geldiaraztea izango da Zubietako Herri Batzarren lehentasun nagusia. Hala adierazi zigun karguhartze ekitaldia eta gero Eñaut Zuriarrainek, Zubietako alkate berriak.

NOAUA! Herri Batzarrean lehen aldiz sartu eta bat-batean, alkate. Espero al zenuen?

Eñaut Zuriarrain. Ez nuen inolaz ere espero.

N. Datozen bi urtetan Zubietako alkate izango zara.

E. Z. Erronka handiak ditugu, batez ere hirigintza proiektuak daude tartean. Errauste planta, makrokartzela, Donostiako udalak ez dakit zenbat etxe egin nahi dituen... Oso gogorra izango dela uste dut.

N. Herri Batzarrek ez du udal batek bezain besteko indarrik. Hori arazo izan al daiteke lan egiteko orduan?

E. Z. Zalantzarik gabe. Zubietako, azken finean, ahalmen juridiko ofizialik gabeko herria da. Orain baino elkarlan eta errespetu handiagoa jaso beharko du bi udalen aldetik.

N. Zeintzuk izango dira Herri Batzarren lanak?

E. Z. Zubietako helburu nagusi gisa jarri eta bi udalekin harremanak hobetzea, ahalik eta elkarlan onena lortzeko.

N. Errauste planta, kartzela, etxebizitzak... Donostiako udalak Zubietan jarri nahi ditu. Zergatik ote da?

E. Z. Zubietako Donostiatik oso gertu dago eta kokapen ona du. Donostiak lurak ditu hemen eta nahi ez dituen proiektuak egiteko leku perfektua da.

N. Horiiek zuekin hitz egin gabe erabaki al dira?

E. Z. Hitz egin dute gurekin, baina erabakia aldezturik hartuta zutela eta zubietarren hitza kontutan hartu gabe.

N. Ordainetan azpiegitura berriak



ERDIAN DA EÑAUT ZURIARRAIN. ALDAMENEAN DITU MARISOL GARMENDIA DONOSTIAKO ZINEGOTZIA ETA LUISMARI ORMAETXEA USURBILGO ALKATEA.

agindu ditu Odon Elorzak.

E. Z. Gerta liteke hori, proiektu on batzuk egitea, makroproiektu txarrak disimulatzeko. Baina horrek ez du balio. Zubietako hirigintza beharrak asetu behar dira; horrek ez du esan nahi bide bat irekiko denik makroproiektuak datozenean haiei amen esateko.

N. Zeintzuk dira zuen kezka nagusiak?

E. Z. Une honetan erraustegia da gure lehentasuna, gero kartzela etorriko

dela ahaztu gabe. Baina badira lantzeko beste gai txiki batzuk ere: Erreboteko plaza, herri bideak, bidegorria...

N. Zer eskatuko zenioke udalei datozen lau urteetarako?

E. Z. Elkarlana hobetzea eta zubietarren hitza kontuan izatea. Erraustegiaren kasuan, onar dezatela ez dela irtenbide egokiena; errazena bai, baina ez onena.

IMANOL UBEDA

Eñaut Zuriarrain lehenik, Imanol Azpiroz ondoren

Zubietar denek zuten Herri Batzarreko hauteskundeetara aurkezteko eskubidea. Bost izan ziren aurkeztu zirenak: Usurbilgo eremutik, Eñaut Zuriarrain, Unai Agirre eta Joseba Mikel Azkorreta. Donostia partetik, Imanol Azpiroz eta Karmele Hevia.

Alde bateko zein besteko hautagai bozkatuenak izango dira Zubietako Herri Batzarreko alkateak. Eñaut Zuriarrain, lehen bi urtetan; Imanol Azpiroz, legealdiko azken bi urtetan.

USURBILGO EREMUAN

Errola	163
Boto-emaleak	101
Txuriak	10
Boto nuloak	3
Eñaut Zuriarrain	64
Unai Agirre	61
Joseba Mikel Azkorreta	25

DONOSTIAKO EREMUAN

Errola	222
Boto-emaleak	122
Txuriak	21
Boto nuloak	1
Imanol Azpiroz	58
Karmele Hevia	42

Aurora Parra sopranoak kantaldia eskainiko du larunbatean

Musika klasikoko kontzertua izango da Sutegin, Aurora Parraren eskutik. Kuban jaio eta duela hiru urtetik Usurbilen bizi den sopranoak musika klasikoko kontzertua eskainiko du.

Pianoak lagunduta, barrokoa, klasisismoa edota erromantizismoak beren tartea izango dute emanaldian. Kontzertu amaieran, euskal errepertorioa ere baliatuko du. Euskal abestiak entzun ahal izango dira Auroraren kontzertuan.

Ibilbide oparoa

Ordiziako Oroith haur abesbatzako zuzendaria da. Ardura hori ikasketekin uztartzen du. Hain zuzen, Donostiako Euskal Herriko goimailako musika ikastegian, Musikenen, kantu ikasketak egiten ari da.

Hala ere, alor honetan ez da hasi berria. Habanako Arteetako Unibertsitatean kantu lirikoari lotu-



MUSIKA KLASIKOKO ABESTIEZ GAIN,
EUSKAL ERREPERTORIA BALIATUKO
DU SUTEGIKO EMANALDIAN.

tako ikasketak egin eta bertako abesbatzak zuzentzen aritu zen. Orfeoi Donostiarra ere gertutik eza gutzen du. Musika bokaleko irakasle teknikoa izan baita.

EKAINAK 16, LARUNBATA. NON:
SUTEGIN, 19:00EAN. SARRERA:
DOAN.

“Kutsidazu bidea, Ixabel” pelikula, igande honetan Sutegin

Juan Martinen abenturak eza-
gun egin ziren liburuan eta
antzezlan batean. “Kutsidazu bidea,
Ixabel” orain film moduan ikus
dezakegu Sutegin.

Denboraldi batez euskaltegian ikasten aritu den gazte donostiarra da protagonista. Gipuzkoako herri txiki bateko baserri batean egiten duen egonaldiko gorabeherak kontatzen ditu filmak. Bertan bizi, lan egin eta herriko euskaltegian udako ikastaro trinko batean parte hartuko du. Abentura horretan Ixabel ezagutuko du.



EUSKARA IKASTEN ARI DEN
GAZTE BATEN GORABEHERAK
AZALTZEN DITU FILMEAK.

EKAINAK 17 IGANDEA. NON:
SUTEGIN, 19:00EAN. SARRERA:
EURO BAT, TAKILAN.

“Egizu lo, Tartalo” antzerkia Aginagako ludotekan

Oihana Tartaloren kobazuloan preso dago. Tartalok bera ez jateko, onena ipuinak kontatzea dela konturatuko da. Dar Dar Taldearen antzezlanak hala erakutsiko du Aginagako ludotekan ekainaren 16an arratsaldeko 17:00etan.

Pirritx eta Porrotx, datorren asteartean frontoian

Aurreko larunbatean, Kiki Aeta Koko pailazoak Kalezarren aritu ziren (irudian). Datorren asteartean, ordea, Pirritx eta Porrotx pailazoek “Mari Motots” eta bere amaren abenturak ekarriko dituzte frontoira. Ekainaren 19an, 17:30ean, haien parkeko sekretuak ezagutaraziko dituzte. Plis Plas Txalota Jolasen azken saioa izango da. Sarrera doan.



Josean Gorgojoren pintura erakusketa, azken txanpan

Ekeinaren 4an zabaldu zen Josean Gorgojoren pintura erakusketa Sutegin. Ekainaren 16ra arte zabalik izango da erakusketa, honako ordutegian: 17:00etatik 19:30era.

N



san joanak kalezar
gehigarri berezia

02



Asteburu honetan hasiko dira festak

egitaraua



Ekainak 16, Larunbata

Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera
14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria
16:00 Musa, izen ematea 16:30ean itxiko da
18:30 Buruhandiak
23:30 Trikitakerekin dantzaldia
Goizaldera, baratxuri zopa

Ekainak 17, Igandea

10:00 Ginkana
11:30 Altxorraren bila
12:00 Oka jokoa
12:00 Toka txapelketa
17:00 Gorritiren
"Showa"
19:00 Patata tortila
lehiaketa



Ekainak 22, Ostirala

18:30 Buruhandiak
19:30 Auzotarren arteko herri kirol lehia
23:30 Trikidantzekin dantzaldia

Ekainak 23, Larunbata

San Joan Bezpera

ETA Umeen Eguna

10:00 IV. Ume krosa
12:00 Jolasak
15:30 San Joan
eskearen irteera
16:30 Tailerrak
18:30 Buruhandiak
19:00 Dj Larrañagaren
saioa
22:00 San Joan sua



**ANDER
ARANZAZISTROKI**

**industri
garbiketarako
sistema eta
produktuak**



 **667 680 236**



MANPEL

**BULEGORAKO
ALTZARI ETA HORNIDURA
PAPER DENDARAKO
ARTIKULUAK**

Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892 • Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com
www.manpel.com





EKAINAK 24, IGANDEA
SAN JOAN EGUNA

11:00 Meza nagusia
13:00 Soka dantza
18:00 Buruhandiak
19:00 Sardina eta sagardo
dastatzea eta hau
alaitzeko Jexuxen
Jazpana, jaiei
amaiera emanaz.

Oharra: Jai Batzordea
ez da jaietan gerta
daitezkeen istripu edo
ezbeharrez arduratuko.



EKAINAREN 24AN, EGUERDIKO 13:00EAN HASIKO DA SOKA-DANTZA.

Josue
Aranzazistroki

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose Orea, 6 Telf: 606 37 21 05
Kalezar

Ondo pasa
Sanjuanak!

SAIDA



ile apainketa
betileen tintaketa

prezio bereziak jubilatuerik

Kalezar · 943 372 952

Oihana Ibarrak eta Xabi Ibarrak irabazi dute

en argazkia, ordea, Xabi Ibarrena da. 11 urte ditu Xabik eta bera ere Santueneko Argazki Lehiaketan saritua izan da.

honetan ospatuko du Batzar Orokorra. Ekainak 15 ostirala, arratsaldeko 15:00etan. 2006 urteko balantzea eta 2007 urterako egitasmoak aztertuko dira. Zuzendaritza berria ere osatuko da.



|BUD| HAU, ORDEA, XAB| |BARRAK ATERATAKOA DA.



**PLIS PLAS
TXALO TA JOLAS**

Aginagako frontoian:
Ekainak 16 • 17:00
**DAR DAR TALDEAREN
EGIZU LO TARTALO**

Kaxkoa, herriko frontoian:
Ekainak 19 • 17:30
PIRRITX ETA PORROTX

Noaia
NARRAZA, KULTURA ETXEA
KULTURAREN ERKUNTZA

Euzko Lehen Ikastetxea
KULTURAREN ERKUNTZA

Primeran pasa genuen Ikastolaren Egunean

Kaixo denoi! Aurten ere, urtero bezala, ikastolaren eguna ospatu genuen ekainaren lehenengo igandean. Primeran pasa genuen denok; txikienok kiroldegian emankizun dotorea eskaini genuen eta Lehen Hezkuntza eta DBHkook berriz jokoak egin genituen. Guzti horren laburpen txiki bat egin nahian, hementxe jarri ditugu argazki batzuk; ea gus-tuko dituzuen eta hurrengo ikas-turterarte!

DBH1 eta Lehen Hezkuntza



Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozategia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

teilatuak eta fatxadak

JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitaratekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Asteburu honetan amaituko da udako kirol jardueretan izena emateko epea

Uztailerako kirol jarduera ezberdinak antolatu ditu Oiardo kiroldegia: igeriketa, aerobika, pilates, gimnasia topaketak, jolasak... Udako jarduera hauetan izena emateko epea asteburu honetan amaituko da.

Lehengo asteko aldizkarian plazaratu genuen Kirol Patronatuak egin duen eskaintza. Baina azken orduko aldaketak izan dira. Informazio gehiago nahi duenak Oiardo kiroldegira jo edo bestela honako telefono zenbaki honetara deitu dezala: 943 37 24 98. Udako



UZTAILEAN IKASTARO UGARI ANTOLATUKO DIRA KIROLDEGIAN.

jarduera hauetan izena emateko epea asteburu honetan amaituko da.

Kirol arloko ekimenak sustatzeko dirulaguntzak

Herrian kirol jarduera desberdinak gauzatzen dituzten elkarte edo norbanakoek 2007. urteko dirulaguntzak jaso ahal izateko eskaerak aurkeztu ditzakete hilabeteko epean.

Usurbilgo Kirol Patronatuak udalerrian egiten diren kirol eki-

menak bultzatu eta sustatzeko asmoz, 2007. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko dirulaguntza deialdia arautuko duen oinarriak argitaratu ditu GAO-n eta kiroldegian aurkeztu beharko dira eskaera horiek horretarako jarriko diren eskaera-orrietan.

Kontribuzioa ordaintzeko garaia da

Dagoeneko Usurbilgo udalak kontribuzioak ordaintzeko epea ireki du borondatezko epean. Domizializaturiko agiriak uztailaren 4an (balio data) kargatuko ditu zergapekoak aginduriko banku edo aurrezki kutxako kontu korrontean.

Domizializatu gabeko kasuetan zergapekoaren helbide fiskalera igorri dira agiriak, epea amaitu baino lehen, ordainketa Kutxa, Euskadiko Kutxa edo Gipuzcoano banketxean berau aurkezturik egin beharko delarik. Ordainketa egiterakoan agiria hurrengo urteetarako domizializatzeko aukera izango du.

Zergapekoak agiriak domizializatu gabe dituen kasuan, 2007. urtea barne eta aurrera begira udalak banku/kaxatik kobratzea nahi izanez gero, ekainaren 22a baino lehen Usurbilgo Zergabilketa sailean agindua eman ez dezake.

Amador Granado, Suitzako lasterketan

Nazioarte mailan, ezin duentzako txirrindularitza lasterketa garrantzitsuenetakoa da Suitzakoa. Ekainaren 9an jokatu zen Gippingen hirian eta Amador Granado usurbildarra bigarren izan zen LC2 kategorian, errepideko lasterketan.

Hiru kontzertu ikasturteari agur esateko

Zumarte Musika Eskolako ikasleek oporrak hartuko dituzte laster. Ikasturteari agur esateko hiru kontzertu eskainiko dituzte. Zumarteko abesbatzak zein talde instrumentalek ikasitakoa ikusteko aukera aparta izango da.

EKAINAK 19, ASTEARTEA
Zumarteko abesbatza eta talde instrumentalak. 19:00etan Sutegin.

EKAINAK 20, ASTEAZKENA
Zumarteko abesbatza eta talde instrumentalak. 19:00etan Sutegin.

EKAINAK 21, OSTEKUNA
Musika Txokoko ikasleak (4-7 urtekoak), abesbatza eta talde instrumentalak. 18:00etan ikastolako aretoan.



Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil



Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

Alebin mailan Gipuzkoako txapeldun

Festa giroa izan zen nagusi Figandean Urnietako kiroldegian. Udarregi, Udarregi, Udarregi... oihukatuz ospatu zuten ikastolako alebin mailako nesken eta mutilen eskubaloit taldeek Gipuzkoako Eskolarteko txapelketa eskuratu izana. Bi taldeek lortu zuten garaipena aldi berean kantxa erdi bakoitzean jokaturako finaletan.

Pasa den igandean ez zen giro Urnietako kiroldegian. Gipuzkoako Eskolarteko txapelketako alebin mailako finalak jokatu ziren bertan goizeko 10.30etan hasita eta Udarregi ikastola izan zen protagonista nagusia. Mutilek jokatu zuten Elgoibar ikastolaren aurka pistaren alde batean, neskek, berriz, Arizmendi-San Viator ikastetxeak izan zituzten aurrez aurre beste aldean. Jokalari gazte hauek animatzera joan ziren usurbildarrak, berriz, nahikoa lan izan zuten bi finalak jarraitzeko.

Amaieran, ordea, nortzuk irabazi zuten argi gelditu zen. Udarregi ikastolako neskek eta mutilek elkarrekin ospatu zuten herriko eskubaloien beste lorpen handi bat. Bi taldeak nagusi izan ziren euren finaletan eta gustura zeuden jokalariek guztiak, baita euren guraso, lagun eta bertara gerturatu ziren herritarrek ere. Beste urte batez alebin mailan txapeldun izan da Udarregi, mutiletan eta nesketan gainera. Zorionak!

JOSU ARANBERRI



Unai Loidi eta Haritz Harreguy finalerdietan

Azken aste hauetan Gomazko Apaletako Gipuzkoako txapelketa herrikoia jokatzeko ari dira Aginagako Hariztitxo pilotalekuan. Duela urte batzuk Gipuzkoako Pilota Federazioak martxan jarri zuen ekimen honetan federatu gabeko palistek parte hartzen dute. Herri desberdinak ordezkatzeko hainbat bikote aritu ziren hasiera ligaxkan eta pasa den ostiralean jokatu ziren txapelketa honetako

final laurdenetako neurketak.

Unai Loidi eta Haritz Harreguyk osatutako bikoteak finalerdiak jokatze txartela lortu zuen. Partida guztian zehar markagailuan atzetik joan ziren, baina neurtzeko amaieran aurrea hartu eta 30 eta 28 garaile izan ziren Asteasuko bikotearen aurka. Aginaga ordezkatzeko jokatu duten Joseba Larburu eta Manuel Galarragak, aldiz, ezin izan zuten txapelketan

aurrera egin. 30 eta 20 galdu zuten Tolosako bikotearen aurkako norgehiagoka eta txapelketatik kanpo gelditu dira.

Ostiral honetan, ekainaren 15ean jokatuko dira finalerdietako norgehiagokak. Unai Loidi eta Haritz Harreguyk Tolosako bikotearen aurka jokatu dute arratsaldeko 20.00etan eta Hernani eta Segura izango dira aurrez aurre beste neurketan.

Eguneko goardiako farmaziaz

Ekainak 14, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 15, ostirala
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 16, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Ekainak 17, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 18, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 19, asteartea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 20, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 21, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 22, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 23, larunbata
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Ekainak 24, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

J. Etchebeste Farmazia

Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia**TST autobusak****ASTEGUNETAN**

Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN**Zubieta-Donostia**

8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN**Zubieta-Donostia**

11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)

11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

**KzGunea, uztailan,
arratsalde irekita**

Ekainean goizez irekita izango da KzGunea, honako ordutegian: 9:00-13:00 (astelehenetik ostiralerara).

Uztailan, arratsalde irekiko dira KzGunearen ateak. Lehenengo hamabostaldian honako ordutegian: 16:00etatik 20:00etara.

Bigarren hamabostaldian honako ordutegian: 14:00etatik 18:00etara.

Telefona: 943 36 14 12.

tutor.usurbil@kzgunea.net

www.kzgunea.net



ORDUTEGIA Tren							
Donostia AMARA	Donostia LUGARITZ	Donostia ANORGA	Donostia ERREKALDE	USURBIL	Orio AIA	Zarauz SAN PELAIO	ZARAUZ
05.47	05.50	05.52	05.55	06.03	06.14	06.19	06.20
06.17	06.20	06.22	06.25	06.33	06.44	06.49	06.50
06.47	06.50	06.52	06.55	07.03	07.14	07.19	07.20
07.17	07.20	07.22	07.25	07.33	07.44	07.49	07.50
07.47	07.50	07.52	07.55	08.03	08.14	08.19	08.20
08.17	08.20	08.22	08.25	08.33	08.44	08.49	08.50
08.47	08.50	08.52	08.55	09.03	09.14	09.19	09.20
09.47	09.50	09.52	09.55	10.03	10.14	10.19	10.20
10.47	10.50	10.52	10.55	11.03	11.14	11.19	11.20
11.47	11.50	11.52	11.55	12.03	12.14	12.19	12.20
12.17	12.20	12.22	12.25	12.33	12.44	12.49	12.50
12.47	12.50	12.52	12.55	13.03	13.14	13.19	13.20
13.17	13.20	13.22	13.25	13.33	13.44	13.49	13.50
13.47	13.50	13.52	13.55	14.03	14.14	14.19	14.20
14.17	14.20	14.22	14.25	14.33	14.44	14.49	14.50
14.47	14.50	14.52	14.55	15.03	15.14	15.19	15.20
15.17	15.20	15.22	15.25	15.33	15.44	15.49	15.50
15.47	15.50	15.52	15.55	16.03	16.14	16.19	16.20
16.17	16.20	16.22	16.25	16.33	16.44	16.49	16.50
16.47	16.50	16.52	16.55	17.03	17.14	17.19	17.20
17.17	17.20	17.22	17.25	17.33	17.44	17.49	17.50
17.47	17.50	17.52	17.55	18.03	18.14	18.19	18.20
18.17	18.20	18.22	18.25	18.33	18.44	18.49	18.50
18.47	18.50	18.52	18.55	19.03	19.14	19.19	19.20
19.17	19.20	19.22	19.25	19.33	19.44	19.49	19.50
19.47	19.50	19.52	19.55	20.03	20.14	20.19	20.20
20.47	20.50	20.52	20.55	21.03	21.14	21.19	21.20
21.47	21.50	21.52	21.55	22.03	22.14	22.19	22.20

00.00 Astelehenetik Ostiralerako LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIEAN

ORDUTEGIA Tren							
ZARAUZ	Zarauz SAN PELAIO	Orio AIA	USURBIL	Donostia ERREKALDE	Donostia ANORGA	Donostia LUGARITZ	Donostia AMARA
06.08	06.09	06.15	06.24	06.30	06.33	06.36	06.39
06.38	06.39	06.45	06.54	07.00	07.03	07.06	07.09
07.08	07.09	07.15	07.24	07.30	07.33	07.36	07.39
07.38	07.39	07.45	07.54	08.00	08.03	08.06	08.09
08.08	08.09	08.15	08.24	08.30	08.33	08.36	08.39
08.38	08.39	08.45	08.54	09.00	09.03	09.06	09.09
09.08	09.09	09.15	09.24	09.30	09.33	09.36	09.39
10.08	10.09	10.15	10.24	10.30	10.33	10.36	10.39
11.08	11.09	11.15	11.24	11.30	11.33	11.36	11.39
12.08	12.09	12.15	12.24	12.30	12.33	12.36	12.39
12.38	12.39	12.45	12.54	13.00	13.03	13.06	13.09
13.08	13.09	13.15	13.24	13.30	13.33	13.36	13.39
13.38	13.39	13.45	13.54	14.00	14.03	14.06	14.09
14.08	14.09	14.15	14.24	14.30	14.33	14.36	14.39
14.38	14.39	14.45	14.54	15.00	15.03	15.06	15.09
15.08	15.09	15.15	15.24	15.30	15.33	15.36	15.39
15.38	15.39	15.45	15.54	16.00	16.03	16.06	16.09
16.08	16.09	16.15	16.24	16.30	16.33	16.36	16.39
16.38	16.39	16.45	16.54	17.00	17.03	17.06	17.09
17.08	17.09	17.15	17.24	17.30	17.33	17.36	17.39
17.38	17.39	17.45	17.54	18.00	18.03	18.06	18.09
18.08	18.09	18.15	18.24	18.30	18.33	18.36	18.39
18.38	18.39	18.45	18.54	19.00	19.03	19.06	19.09
19.08	19.09	19.15	19.24	19.30	19.33	19.36	19.39
19.38	19.39	19.45	19.54	20.00	20.03	20.06	20.09
20.08	20.09	20.15	20.24	20.30	20.33	20.36	20.39
21.08	21.09	21.15	21.24	21.30	21.33	21.36	21.39
22.08	22.09	22.15	22.24	22.30	22.33	22.36	22.39
22.40	22.41	22.47	22.56	23.00	23.03	23.06	23.09

00.00 Astelehenetik Ostiralerako LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIEAN

Agenda !

Ekainak 16, larunbata

- "Egizu lo, Tartalo" haurrentzat antzerkia Aginagako frontoian, 17:00etan. 4-11 urte bitartekoentzat. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

- Aurora Parra Beatón sopranoa Sutegin. 19:00etan. Doan.

Ekainak 17, igandea

- "Kutsidazu bidea, Isabel" pelikula. Sutegin, 19:00etan. Sarrera: euro 1.

Ekainak 19, asteartea

- Pirritx eta Porrotx pailazoak frontoian. 17:30ean, sarrera doan. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

- Zumarte Musika Eskolaren emanaldia, 19:00etan Sutegin.

Ekainak 20, asteazkena

- Zumarte Musika Eskolaren emanaldia, 19:00etan Sutegin.

Ekainak 21, osteguna

- Zumarte Musika Eskolaren emanaldia, 18:00etan Ikastolako aretoan.

Igande honetan, Motzaren omenezko ekitaldia

Duela hiru urte hil zen Joxe Mari Arriaga, *Motza* ezizenez ere ezaguna. Haren errautsak Haitzaundin (Bordatxon) aieratu zituzten. Igande honetan, *Motza* hil zela hirugarren urteurrena ekarriko dute gogora. Haitzaundira igoko dira eta bertan plaka bat jarriko dute. Joxe Domingo Aizpuruaren idatzi honekin osatu da plaka: "Etsaiaren atzaparretatik ihes / 'Haitzaundik' bere sabelean / babestu hinduen. / Handik borrokara hintzen irten. / Hire errautsak ari dituk / Harri eta Herri bihurtzen".

Omenalditoxa goizeko 10:00etan hasiko da. Euren lagu-



nek eta senideek bertara hurbiltzeko deialdia egin dute.

ORDUTEGIA
Autobus

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

DONOSTIA - ZARAUTZ

ZARAUTZ-DONOSTIA

DONOSTIA

URBIL

USURBIL

ZARAUTZ

ZARAUTZ

USURBIL

URBIL

DONOSTIA

07.40	>>	08.05	08.25	08.45	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35		08.15	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.25	08.45	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35		08.15	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.25	08.45	09.05	>>	09.30
10.10	>>	11.05	11.25		09.40	09.45	10.10
11.40	>>	12.05	12.25	09.45	10.05	>>	10.30
12.10	12.30	12.35			10.40	10.45	11.10
12.40	>>	13.05	13.25	10.45	11.05	>>	11.30
13.10	13.30	13.35		11.45	12.05	>>	12.30
13.40	>>	14.05	14.25	12.45	13.05	>>	13.30
14.10	14.30	14.35			13.40	13.45	14.10
14.40	>>	15.05	15.25	13.45	14.05	>>	14.30
15.10	15.30	15.35		14.40	14.45		15.10
15.40	>>	16.05	16.25	14.45	15.05	>>	15.30
16.10	>>	17.05	17.25		15.40	15.45	16.10
17.40	>>	18.05	18.25	15.45	16.05	>>	16.30
18.10	18.30	18.35			16.40	16.45	17.10
18.40	>>	19.05	19.25	16.45	17.05	>>	17.30
19.10	19.30	19.35		17.45	18.05	>>	18.30
19.40	>>	20.05	20.25	18.45	19.05	>>	19.30
20.15	20.35	20.40	21.00		19.40	19.45	20.10
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	>>	20.30
22.15	22.35	22.40	23.05	20.45	21.05	21.10	21.30
				21.15	21.35	21.40	22.00

00.00

Atera jarraitzen du.

00.00

Astelehenetik Ostiralera

ORDUTEGIA Autobus

Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN

DONOSTIA

URBIL

USURBIL

ZARAUTZ

ZARAUTZ

USURBIL

URBIL

DONOSTIA

DONOSTIA - ZARAUTZ

08.00	08.20	08.25	08.45	06.45	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.45	07.45	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.45	08.45	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.45	09.45	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.45	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.45	11.45	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.45	12.45	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.45	13.45	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.45	14.45	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.45	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.45	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.45	17.45	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.45	18.45	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.45	20.45	21.05	21.15	21.30
22.30	22.50	22.55	23.15	21.45	21.05	21.15	21.40

NEGOKO LANEGUNAT GAUEAN

00.00	>>	00.25	00.45	23.15	23.35	>>	00.00
02.00	>>	02.25	02.45	01.15	01.35	>>	02.00
04.00	>>	04.25	04.45	03.15	03.35	>>	04.00
06.00	>>	06.25	06.45	05.15	05.35	>>	06.00

00.00

Larunbat lanegunetaz bakarrik.

ZARAUTZ - DONOSTIA

ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldea, sala, 3 gela, ganbara eta gara-jea. 48.000.000 pta. Interesatuak deitu 650938489 telefonora.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. Tf: 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.
- Fiat Punto kotxea salgai. Matrikula: SS-AU. Prezioa: 600 euro. 669 71 88 35 (Arratsaldez deitu).
- Citroen C2 VTS+ beltza daukagu salgai. 18.000Km eta garantian dago oraindik. Interesatuak deitu 651708545 telefonora.

LANPOSTUAK**Lan-eskaintzak**

- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Usurbilgo kafetegi batean goizez lana egiteko pertsona euskaldun bat behar dugu. Interesatuak deitu 690106070 telefonora.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 362713.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume

baten bila gabiltza 645 403 905.

- Lanerako prest dagoen neska baten bila gabiltza. 6-8 orduz lanean aritzeko. Datuak eta telefonoak faxez bidali: 943 579816.

Lan-eskaerak


- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrela-ko lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Inork etxean alfer-alferrikeri telebista txiki bat edukiko balu, gustora berrerabiliko genuke Udarregi ikastolan. Bide batez, zaharkitutako vhs bideo reproduktorea

ere hautsak jaten ari badizu, guk etekina aterako genioke ikastolan. Telefono zenbakia: 943 361216.

- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginiokak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Añamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birikariak, dena hornitua, ASR... Tf: 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere: Tf: 664 774 024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isothermiko-duna salgai. 676 453 176.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

**Zorionak Eneko!**

Ekainaren 15ean hiru urte beteko dituzu. Zorionak aiton-amonen partez eta egun ona pasa!

**Zorionak aitona eta amona!**

Dagoeneko 50 urte bata bestearekin, hori da hori meritua! Ekainaren 13an izan bada ere, igandean ospatuko dugu! Muxu asko etxekoen partez.

Oharra

Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenik orri honetan ikusi nahi baduzu, deitu eta datuak eman honako telefono zenbakian: 943 360 321. Edo bestela, e-postaz bidali honako helbidera: erredakzioa@noaua.com

Datorren alea ekainaren 22an plaza-ratuko dugu.

Informazioa bidaltzeko azken eguna: ekainak 18.



MARGOAK - PAPERAK

FERNANDO TINTURAK

ENPAPELAKETAK ETA PINTURAK OROKORREAN



Kale nagusia 1
943 366 019 • 943 363 460

ALUAL S.L.

Ugalde
industrialdea
20 zenbakia - behea
Telf.: 943 370 506
Faxa: 943 370 550
20170 USURBIL



*Aluminiozko aroztegia
Zubi termikoaren hausturarekin
Egurraren imitazioa
Poliuretanozko Belkopur lehioak*



SAIZAR

Sagardotegia
Jatetxea



Kale-zahar Auzoa, 39
20170 USURBIL
GIPUZKOA

Tel.: 943 362 228

www.sidrassaizar.com

